

Markina-Xemeingo III. Trikitixa Txapelketa

Markina-Xemeingo III. Trikitixa Txapelketa ospatuko da 2022ko maiatzaren 14an, Okela Eguneko egitarauaren barruan.

Txapelketan izena emateko epea zabalik dago otsailaren 28ra arte. Parte hartu nahi dutenek email bat bidali beharko dute mxtrikitixapelketa@gmail.com helbidera, izen-abizenak, jaiotze data, herria eta kontakturako telefono bat zehaztuz. Txapelketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da 22 urte beteta izatea edo 2022.urtean 22 urte betetzea. Horrekin batera, trikitilari eta panderojole batek osatutako bikoteek parte hartu ahal izango dute txapelketan. Parte hartuko duen bikote bakoitzak ondorengo piezak jo beharko ditu:

- Trikitixa
- Porrusalda
- Fandangoa
- Arin-arina

OHARRA: bikote kopurua handia izanez gero, lau pieza jo beharrean 3 pieza jo beharko lirateke, porrusalda kanpoan utziz.

Sariak ondorengoak izango dira:

- 1.saria: 1.000€ eta txapelak
- 2.saria:700€ eta oroigarriak
- 3.saria :600€ eta oroigarriak
- 4.saria: 300€
- Ondorengoek 250 €ko dieta jasoko dute.

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu:

- ❖ Zailtasuna: auspoaren teknika eta digitazioa
- ❖ Ejekuzioa
- ❖ Piezaren zentzua
- ❖ Erritmoa
- ❖ Kantua
- ❖ Panderojolearen lana: piezarekiko lotura.

Markina-Xemeinen, 2022ko otsailaren 3a